



INGURUMEN IRIZPIDEAK EROSKETAN TXERTATZEKO LABURPEN-FITXA:

BULEGO-MATERIALA

Argitalpen-data: 2014

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuen da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

INGURUMENA GEHIAGO ERRESPESTATZEN DUEN BULEGO-MATERIALA EROSTEA

“Bulego-materiala” kontzeptuaren atzean produktu desberdin ugari daude, hala nola sailkatzeko karpetak, idazteko materiala (boligrafoak edo arkatzak), CDak eta material ez-suntsikorra (guraizeak, grapagailuak edo zorrozkaileak)¹.

Ingurumen-analisiari dagokionez, bulego-materiala produktu-talde berezi bat da. Batetik, beste material-mota batekin alderatzen badugu, ez du ingurumen-inpaktu handirik; eta, bestetik, ez du gastu ekonomiko handiegirik. Hala ere, sarri erabiltzen da material-mota hori, eta, horregatik, bulego-materiala ingurumen-irizpideei jarraituta erosiz gero, bultzatu egiten dira erabiltzaileek ingurumenarekiko duten sentsibilizazioa eta enpresaren jokaera eredarria.

Azken batean, Nola bete dezakegu ingurumena gehiago errespetatzen duen bulego-materiala erosteko erabakia? Eta zer ondorio ditu horrek? Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko *oinarrizko kontzeptu batzuk, ingurumen-irizpide batzuk* eta beste datu erabilgarri batzuk.

¹ Bulegoko paperaren kasuan, kontsultatu berariazko laburpen-fitxa.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Bulego-materialarekin lotutako ingurumen-inpaktuak gutxitzeko, funtsezko zenbait kontzeptu eta ideia ezagutu behar dira:

Zenbait kontzeptu nagusi

Bulego-materialarekin loturiko zein ingurumen- eta teknika-alderdi eduki behar dira kontuan?

1. Fabrikazio-prozesuan erabiltzen diren materialak eta produktu-motak; eta produkzio-sistema edo –prozesua bera.
2. Artikuluaren iraungarritasuna: kalitateak, erresistentziak eta diseinu sinpleak balio-bizitza ahalik eta luzeena bermatu behar dute.
3. Birziklatzeko gaitasuna: Bulegoko tresneria osatzen duten materialak erraz birziklatu ahal izatea eta tresnak material bakarrez eginak izatea.
4. Enbalaje-sistema bat izatea; horrela, optimizatu egiten dira espazioa, erabiltzen den materiala, material horren kudeaketa eta material horren birziklapena.

Horretarako, zein neurri hartu behar dira?

- Erosten diren produktuen aniztasuna murriztea. Zenbat eta aniztasun gutxiago, orduan eta errazagoa izango da stocka eta eskaerak kontrolatzea, eta baita ingurumen-irizpideak txertatzea ere.
- Osasunean eta ingurumenean eragin kaltegarriak dituen materialik gabeko produktuak aukeratzea:
 - ⇒ Produktu lehorrak edo oinarri ura dutenak (arkatz fluoreszente, zinta zuzentzaile edo lekeden kasuan, adibidez).
 - ⇒ Polipropileno (PP), polietileno (PE) eta zelulosa-azetatozko plastikoak.
 - ⇒ Lakatu gabeko produktuak.
- Material birziklatu askoko produktuei lehentasuna ematea.
- Kalitatezko produktuak, berrerabilgarriak eta berriz kargatzekoak erostea.
- Erraz birziklatzen diren materialez egindako produktuak (esaterako, papera, PPa edo PEa) eta material bakarrez egindakoak aukeratzea. Esaterako, kartoizko sailkagailuek edo karpetek ez dute plastikozko estalkirik izango, eta guraize eta grapagailuak metalezkoak izango dira soilik, plastikorik gabe.
- Banakako bilgarrietan datorren produkturik ez erostea, eta erabiltzen diren ontzi eta enbalajeen inpaktua minimizatzea.
- Eskaerak egiteko prozesua optimizatzea, enpresa hornitzailearen joan-etorriak gutxitzeko.
- Materiala arduraz erabiltzea.
- Hondakinak behar bezala kudeatzea.

Zenbait kontzeptu nagusi

Arlo horri lotutako ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- **Etiketa ekologiko ofizialak** Hauek dira bulego-materiala modu ekologikoan erosteko kontuan hartu behar diren etiketa ekologiko nagusiak (erakunde ofizialek emanak):



Etiketa ekologikoa	Logo ofiziala	Deskripzioa
Aingeru Urdina (Alemania)		Paperezko edo kartoizko produktuak: karpetak, sailkagailuak, zorroak, etab.
Europako Etiketa Ekologikoa		Kopientzako papera eta paper inprimatua
Beltxarga Zuria (herrialde eskandinaviarrak)		Paperezko eta/edo kartoizko produktuak; esaterako, gutun-azalak, liburuxkak, idazteko produktuak
NF-ENVIRONMENT (Frantzia)		Paperezko edo kartoizko produktuak: karpetak, liburuxkak, gutun-azalak...
Ingurumen Kalitatea Bermatzeko Marka (Katalunia)		Paperezko edo kartoizko, material konpostagarriko, plastiko birziklatuzko eta zurezko artikulua

- Baliagarri izan daitezkeen **beste ziurtagiri eta logotipo batzuk**:

Produktu guztietarako	...	Produktuaren birziklatutako material-edukierari buruzko informazioa ematen duten auto-adierazpena.
Paper edo zurezko produktuarentarako	...	Produktua fabrikatzeko materiala era iraunkorrean kudeatutako baso edo ustiapenetatik datorrela edo material birziklatuz egina dela ziurtatzen dute
Plastikozko produktuarentarako	...	Produktua biodegradagarria dela ziurtatzeko balio dute. EN 13432 arauaren arabera dela bermatu behar da.

Zenbait kontzeptu nagusi

- **Kontuz!** Sinbolo edo izendapen batzuek ez dute produktuaren ingurumen-hobekuntzari buruzko informaziorik ematen, eta beraz, ez dute balio erosketara berderako. Esate baterako

Punto berdea		Adierazten du enpresa ontziratzailerak ontzi- eta bilgarri-hondakinak kudeatzeko sistema integratuari (Ecoembes) kanon bat ordaindu diola, hondakin bihurtutakoan kudeaketa bermatzeko. Hortaz, ontzi-hondakinaren kudeaketaz informatzen du soilik, eta ez ontzi horren ingurumen-kalitateaz (are gutxiago, jakina, ontziaren edukia ere)
Möbius zirkulua		Sinbolo hau produktu birziklagarri zein birziklatuetarako erabiltzen da. Beraz, barruan ez badu birziklatutako material-portzentajerik adierazten, berak bakarrik ez du balio produktuaren ingurumen-hobekuntza ezagutzeko (birziklatua den ala ez, eta zer portzentajetan)
"Produktu ekologikoa", "Produktu arduratsua ingurumenarekin" edo antzeko auto-adierazpenak		Esaldi generikoak dira, informazio zehatzik gabeak, eta beraz, ez dute inolako baliorik erosketara berdearen inguruko erabakiak hartzeko.



KONTRATAZIOETIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Ingurunea errespetatzen duen bulego-materiala erosteko prozesuan, zenbait unetan aukera dugu erabaki edo eragiteko. Zer unetan? Nola izan iraukerak?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. Urratsa. Beharrak

Bulego-material berria erosi aurretik, gure benetako beharrak aztertzea komeni da:

- Zer produktu behar ditugu benetan? Zenbat? Erantzun egokia lortzeko, erosten diren produktuen erregistro bat eta kontsumitzen direnen historia edukitzea komeni da, haien azterketa ea ebaluazioa egiten lagunduko baitigute.
- Bulego-materialaren kontsumoa murrizteko neurrien bat har nezake. Esaterako: artikulua berrituz erabiltzea, produktu desberdinen kopurua murriztea, balio-bizitza luzea duten produktuak erabiltzea edo erabiltzen diren ontzien inpaktua gutxitzea.

Erantzunen bidez, bulego-materiala erosteko dugun benetako beharra hauteman, zenbatu eta doitu dezakegu.

ZER BULEGO-MATERIAL EROSI BEHAR DUGU?

2. Urratsa. Bulego-materiala erostea

Bulego-materialen behar zehatzak ezagutu ondoren, ezinbestekoa da erosketan txertatuko ditugun ingurumen-irizpideak zehaztea. Irizpide hauek bulego-materialari eta banaketa-zerbitzuari aplikatu dakizkieke.

Bulego-materialaren ingurumen-irizpideak:

Orientazio gisa, jarraian dagoen taulan bulego-material mota nagusietan *exijitu* edo *baloratuko* diren ingurumen-irizpideak biltzen dira:

Bulego-produktua	Ingurumen-irizpidea
Artxibategiak, aurkibide eta bereizgailuak, karpetak eta azpikarpetak	Material bakarreko produktuak (estaldurarik gabe)
	% 100 paper edo kartoi birziklatuz eginiko produktuak eta klororik gabeak (TCF)
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
Zorroak eta dossierrak	Ekoetiketaren bat duten produktuak
	Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko produktuak edo
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
Libretak, blokak, gutun-azalak eta ohar itsasgarriak	Ekoetiketaren bat duten produktuak
	Material bakarreko produktuak
	Paper edo kartoi % 100 birziklatuzko eta TCF produktuak
Boligrafoak	Ekoetiketaren bat duten produktuak
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
Errotuladore eta arkatz markatzaileak	Produktua gehi ordezko karga
	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak edo
	Produktu lehorrak
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
	Produktua gehi ordezko karga

2. Urratsa. Bulego-materiala erostea

Lapitzak	Lakatu gabeko lapitzak
	FSC zurezko lapitzak
	Portaminak gehi ordezeko karga
Borragomak	PP edo kautxu naturalezko produktuak
Kolak eta lekedak	Oinarritzat ura duten disolbatzaileak dituzten produktu likidoak
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
	Produktua gehi ordezeko karga
Zinta itsaskorrek	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
Zuzentzeko materiala	Produktu lehorrak
	PP, PE edo zelulosa azetatozko produktuak eta material birziklatu asko dutenak
	Produktua gehi ordezeko karga
Guraizeak, grapagailuak, zulagailuak, zorrozkaileak	Material bakarreko produktuak

Kasu guztietan banakako ontzirik gabe eta/edo 5 produktu edo gehiagoko kaxatan hornitzen diren produktuak aukeratuko dira.

Hornikuntza-zerbitzuaren ingurumen-irizpideak:

- Bulego-materiala kaxa berrerabilgarrietan banatzea adostuko da enpresa hornitzailearekin (hurrengo eskaeran berreskuratuko dira kaxak).
- Eskariak egiteko maiztasuna zehaztuko da, joan-etorrien kopurua optimizatzeko.
- Kopuru handietarako, aplikazio informatikoak gaitzea eskatuko da, eskaerak bideratzea errazteko eta baliabideen kontsumoa (hala nola paperarena) murrizteko.

Administrazioak bulego-materialak prozedura ireki edo negoziatu baten bidez erosi behar baditu, Ihobek argitaratutako Kontratazio eta Erosketa Publiko Berdearen Gidaliburuan aurkituko dituzu orrian sartu beharreko irizpideak. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak ezarritakoa eta dagokion administrazioari gehien egokitzen zaion eskakizun-maila betetzen dute irizpide horiek.

AZKENEKO URRATSA: NOLA KUDEATU ERABILTZEN EZ DIREN PRODUKTUAK ETA HONDAKINAK?

3. unea. Hondakinen kudeaketa

Ontzien eta enbalajeen hondakinak gutxitzeko neurriak aplikatu arren, eta berriro kargatzeko produktuak eta bizi luzea duten produktuak erosi arren, azkenean beti sortuko ditugu hondakinak. Zer egin behar da hondakinak behar bezala kudeatzeko?

Materiala ezin bada berriz erabili, haien balio-bizitzaren amaieran tratamendu zuzena emango zaiela bermatu behar da. Horrela:

- Ingurumen-irizpideak txertatu badira, hondakin gehienak hiri-hondakinen parekoak izango dira (papera/kartoia eta plastikoak), eta, beraz, gaikako bilketarako edukiontzietara botako dira.
- Spray edo gailu elektronikoen moduko hondakin bereziak baztertu egingo dira, eta kudeatzaile baimendu batek kudeatuko ditu. CD eta DVDen kasuan, udalaren hondakin zerbitzuaren bidez edo beste zerbitzu batzuen bidez kudeatu daitezke.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.